

**2024-2025 ALDIRAKO UNIBERTSITATEA-ENPRESA EKINTZETARAKO
AURREIKUSITAKO FUNTSEN KARGURA IKERKETA ETA BERRIKUNTZA
TEKNOLOGIKORAKO LAGUNTZAK, UEP 2024**

Kontaktua UPV/EHU:

convocatoriasautonomicas.dgi@ehu.eus

Deialdiaren helburua:

Deialdi honen xedea 2024-2025 aldian laguntza ekonomikoak ematea da, ezagutzaunibertsitatek enpresetara transferitzeko, enpresa horientzat interesgarriak diren arloetan.

Proiektuak unibertsitate-taldeak garatu behar ditu, enpresako langileen parte-hartzearekin; nahi izanez gero, lankidetzan diharduten entitate parte-hartzaileetako ikertzaileek ere parte hartu ahalizango dute.

Parte hartzen duten enpresek, gutxienez, proiektuaren kostu osoaren % 10 finantzatu beharko dute eskudirutan zein salgaietan egindako ekarpenaren bidez. **lankidetzahitzarmena** izenpetuko da unibertsitate onuradunaren eta enpresaren artean

Kreditu erabilgarria:

Gehienez 100.000 proiektu bakoitzeko, 12 ikertzaile doktorek **edo gehiagok** osatutako ikerketa-taldeetan.

Gehienez 50.000 euro proiektu bakoitzeko, 12 ikertzaile doktorek baino gutxiagok osatutako ikerketa-taldeetan

Entitate onuradunak:

ikerketa-taldeko kide guztiek izan beharko dute euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerak babesteko laguntzendeialdian A edo B talde gisa akreditatutako ikerketa-talde batekoak (2022-2025 aldirako deialdia).

Enpresa, dirulaguntzaren onuradun ez bada ere, ikerketaren emaitzen benetako jasotzailea da.

Enpresa parte-hartzaile bakoitzak, zeinak EAEn eduki behar baitu egoitza soziala eta eskaeran parte hartu behar baitu, ezin izango du jaso dirulaguntzaren parterik, ez zuzenean ez zeharka. Beraz, proiektuaren esparruan, unibertsitate onuradunak ezin izango du enpresa hori kontratatu lanak egiteko, eta enpresa horrek ezin izango du hornigairik saldu, ezta geldialdi teknikoengatik kobratu ere. Aitzitik, enpresak, eskudirutan edo salgaietan egindako ekarpenez gain, proiektuaren helburuak lortu ahal izateko behar diren giza baliabideak, baliabide teknikoak eta materialak ipini beharko ditu, horrek agerian uzten baitu enpresak proiektuaren emaitzekiko duen interesa. Xede horretarako, ez dira

enpresatzat hartuko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko eragile akreditatuak, I+G enpresa-unitateen kategoriakoak izan ezik.

Oinarrizko Ikerketako eta Bikaintasuneko Zentroak (BERC), Teknologia-zentroak eta Ikerketa kooperatiboko zentroak (IKZ) Eskeraren lankidetzan diharduten entitate parte-hartzailetzat hartuko dira. Lankidetzan diharduten entitate parte-hartzaile horiek ezin dira izan deialdi honetako laguntzaren onuradun, nahiz eta enpresaren ordainketetatik kobratu ahal izango duten

Ikerketa-proiektuen betekizunak:

Proiektuak 1 eta 2 urteroko osotan egiteko eskatu ahal izango dira. **1** azken urtean beste lau hilabeteko epea izango dute amaitzeko

Deialdiaren ondorioetarako, 2024ko ekitaldian hasiko dira proiektuak egikaritzen, hots, emandako dirulaguntza onartzen denean. Egikaritze-fasearen amaiera proiektuan aurreikusitako iraupenaren arabera izango da, baina administrazio-jarduketak 2026ko ekainaren 26a baino lehenago amaitu behar dira.

Deialdira aurkezten diren ikerketa-proiektuek I. eranskinean aipatzen diren printzipio bioetikoak errespetatu beharko dituzte

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak:

Eskararekin batera joan behar duen proiektuaren aurrekontua epigrafeke eta urteke egituratu eta justifikatuko da, deialdi honen bidez lagundu daitezkeen kontzeptu hauen arabera:

a.1 Doktore ez diren laguntzaileak.

Zenbateko bat finantzatu ahal izango da proiektu bakoitzeko, laguntzaile bakar bat ordaintzeko urteko. Proiektuan gutxienez urtebete egon beharko da.

5.a.1 artikulua araberak; "Doktorea ez den langile laguntzaile gisa kontratatuzko, lanaldi oso baterako, 22.951 euroko dirulaguntza emango da (18.092 euro nominaren gordina) laguntzaile beraren lehenengo eta bigarren urtekoetan, eta 24.360 eurokoa (19.385 euro nominaren zenbateko gordina) hirugarren urtekoan."

Osagarri bat finkatu da jardunari uztearen ondoriozko kalte-ordaina estaltzeko, kontratua amaitzean indarrean den araudiaren arabera. Kontratu bakoitzeko, gehienez ere, 1.838,37 euro ordainduko dira kalte-ordain gisa

Kontratu mugagabe gisa (ZTBLren 23.bis artikulua) edo doktoratu aurreko kontrato (ZTBLren 21. artikulua) gisa kontratatu ahal izango da.

UPV/EHUn 23bis artikulua kontratoen aurreikusitako 2024rako kostuak **47.784,59** € dira. Kostu horien % 3ko goiera aurreikusten da 2025 eta 2026rako

UPV/EHUn 21. artikuluko kontratuen aurreikusitako 2024rako kostuak;

- 1. eta 2. urtekoak: **26.708,23 €**

- 3. urtekoa: **28.215,31**

Kostu horien % 3ko igoera aurreikusten da 2025 eta 2026rako.

Beharrezkoa izango da lan-kontratua beste batzuekin kofinantzatzea, PES edo Talde organikekin

a.2 Doktore diren laguntzaileak.

Zenbateko bat finantzatu ahal izango da proiektu bakoitzeko, laguntzaile bakar batordaintzeko urteko. Proiektuan gutxienez sei hilabetez egon beharko da

Laguntzaile horrek doktore-titulua izan beharko du, eta **doktore-tesia** 2023an lortu beharko du.

5.a.2 artikulua araberak; "Doktore diren laguntzaileen kasuan, lanaldi oso baterako, 42.863 euroko dirulaguntza emango da (31.803 euro nominaren zenbateko gordina) Proiekturako dedikazioa txikiagoa balitz, zenbatekoa proportzionala izango litzateke urteko dedikazio bakoitzeko

Osagarri bat finkatu da jardunari uztearen ondoriozko kalte-ordaina estaltzeko, kontratua amaitzean indarrean den araudiaren arabera. Kontratu bakoitzeko, gehienez, 2.091,16 euro ordainduko dira kalte-ordain gisa

UPV/EHUn doktoreak kontratatuzko kostuak, 2024rako, **54.208,1€**-koak dira, eta 2025 eta 2026rako % 3ko igoera aurreikusi da.

Beharrezkoa izango da lan-kontratua beste batzuekin kofinantzatzea, PES edo Talde organikekin.

b. Material inbentariagarria.

Proiektuaren kargura eskuratutako ekipamendu bakoitzak urteko 20.000 euro baino gutxiago balio beharko du, BEZik gabe.

Deialdi honetatik kanpo daude esplizituki altzariak eta instalazioak, baita kudeaketarako ekipamendu informatikoa erostea ere

c. Material suntsikorra

Ez da sartzen bulegoko material orokorraren finantzaketa.

d. Bidaiak

Proiektuaren jarduerak burutu ahal izateko egiten diren bidaien ondoriozko gastuak onartuko dira. Halaber, proiektuan ateratako emaitzak ezagutzera emateko egiten diren bidaia-gastuak ere onartuko dira, proiektua egikaritzeko azken urtean egindakoak. Azken kasu horretan, **pertsona bakarrik** eginiko gastuak bakarrik lagunduko dira diruz

e. Bestelako gastuak

Aurreko kontzeptuetan sartzen ez diren gastuak finantzatu ahalko dira, finantzatutako aurrekontuaren % 5 gehienez, baldin eta proiektuaren helburuak gauzatzeko beharrezko direla justifikatzen bada

Ikertzaileen betekizunak:

ikerketa-taldeko kide guztiek izan beharko dute euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldean jarduerak babesteko laguntzendeialdian A edo B talde gisa akreditatutako ikerketa-talde batekoak (2022-2025 aldirako deialdia) eta Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza soziala duen enpresa bateko kideek. 3.4 artikulua arabera, aukerakoa izango da lankidetzan diharduen entitate baten parte-hartzea

Ikerketa-taldea, gutxienez, unibertsitate eskatzaileko bi ikertzailek (horietako bat ikertzaile nagusia izango da) eta proiektuan parte hartzen duen enpresako hirugarren pertsona batek osatuko dute. Hiru pertsona horiek osatuko dute gutxieneko ikerketa-taldea. Talde horrek proiektuan jarraitu beharko du, gutxienez, proiektua egikaritzeko fase osoan; ikertzaile nagusiaren kasuan, gainera, 4.1 artikuluan aipatzen den lau hilabeteko aldi gehigarrian ere jarraitu beharko du.

Eusko Jaurlaritzak ez du kontratua luzatzeko konpromisorik onartuko gutxieneko taldea osatzen duten pertsonentzat.

• Ikerketa-taldeak honela osatuta egon beharko du:

- a) Proiektua zuzenduko duen ikertzaile nagusi bat, doktore-titulua izango duena eta entitate eskatzailearekin estatutupeko edo lan-kontratuko lotura bat izan behar duena.
- b) Gainerako ikertzaileak, doktore-titulua edo lizentziatura, arkitektura edo ingeniari-titulua edo unibertsitateko gradua izan dezaketenak. Entitate parte-hartzaile bakoitzean baldintza hori betetzen duen ikertzaile bat egon beharko da, gutxienez, eta entitatearen plantillakoa izan beharko da.
- c) Enpres(et)ako langileak, programaren xede den teknologiaren arloan esperientzia egiaztatua dutenak eta aurreko paragrafoetan adierazitako kategorietan sartzen ez direnak

Taldearen osaeraren arau orokorrak

- Ikerketa-taldea osatzen duten ikertzaileen multzoak proiektuari eskainiko dion gutxieneko dedikazioa urteko **1.400** ordukoa izango da, eta talde bakoitzeko ikertzaile nagusiaren gutxieneko dedikazioa urteko **420** ordukoa izango da.

Erantzikizunpeko adierazpen sinatu baten bidez, parte hartzen duen ikertzaile bakoitzak adieraziko du zenbat ordu konprometitu dituen deialdi honetan eskatutako proiektua egingo den urteetarako emandako edo eskatutako beste proiektu batzuetan. Hori horrela, ordu-kopuru nahikoa eskaini beharko die proiektu honetan esleitu eta konprometitutako jardueri

- Ikertzaile nagusi beraren eskaera bat baino ez da onartuko.
- ikertzaileak eskaera bakar batean parte hartu ahal izango du.
- Ezingo dute deialdi honetan parte hartu aurreko unibertsitate-enpresa proiektuetan parte hartu duten ikertzaileek, baldin eta eskaera aurkezteko egunean beren jarduerak oraindik amaitu gabe badituzte, bete gabeko obligazioak dituztelako. Salbuespen izango dira, nolatan ere, honako hauek: amaierako txosten zientifikoa, egindako argitalpenak eta enpresaren txostena
- Finantzatutako proiektu bat onartutako amaiera-data baino lehen bertan behera uzten bada, parte hartu duten ikertzaileek ezingo dute beste proiektu berri batean parte hartu, harik eta hasierako proiektu hori onartu zen unean aurreikusitako amaiera-data bete arte. Alderdi hori 18.2 artikuluan deskribatutako gutxieneko betekizun galdagarritzat hartuenez, inguruabar horietan gertatzen diren proiektu-eskaerak ukatu egingo dira, eta gerora gertatutako ez-betetzeak dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du.
- Deialdiko eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen kontratatu beharko ditu entitate eskatzaileak ikerketa-taldeko kideak. Halaber, ikertzaile nagusiak kontratu bat izan beharko du entitate eskatzailearekin, proiektuaren iraupen osoa baino luzeagoa, eta hor sartuko dira egikaritze-fasea eta 4.1 artikuluan zehaztutako lau hileko aldi gehigarria
- ikerketa-taldea osatzen duten beste bi ikertzaileek gutxienez proiektuaren iraupen berdineko aldi eta dedikazio baterako kontratatuak izan beharko dute
- Gainerako taldekideek proiektuan izango duten parte-hartzeari dagokiona baino iraupen txikiagoko kontratua izan dezakete, baldin eta entitate eskatzaileak egiaztatzen badu konpromisoa hartzen duela kontratuari eusteko, proiektuan parte hartzen duten aldi osoan zehar
- Ikertzaileak obra baterako kontratatu badira, obraren iraupenari eta, hala badagokio, kontratuaren balizko luzapenari buruzko egiaztagiria aurkeztu

beharko dira, bai eta entitatearen adierazpen bat ere, kontratuaren xede den obrak dakarren ordu-dedikazioa zehaztuta; adierazpen horretan, proiektuan konprometitutako jarduerak burutzeko adina ordu badituela adierazi beharko du argi eta garbi.

- Deialdiaren ondorioetarako, Ikerbasque Fundazioak Research Professor, Research Associate edo Research Fellow kategorietan kontratatutako ikertzaileak, baldin eta entitate bati atxikita badaude, entitate horretako langileak direla ulertuko da

Eskaerak aurkezteko modua:

Eskaera ondoko esteka honen bitartez bete behar da:

<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2024/pue-2024/web01-tramite/eu/>

Eskaerak UPV/EHUn aurkezteko prozedura:

AZKEN EGUNA	IZAPIDEA
2024/02/09 (13:30 arte)	<ul style="list-style-type: none">– I. eranskina bidaltzea proposatutako langileen zerrendarekin, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak azter dezan.– Ikertzaile nagusiak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena bidaltzea (barne dokumentua). <p>Barne dokumentu horiek Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean daude eskuragarri: https://www.ehu.eus/eu/web/ikerketaren-kudeaketa/deialdiak-proiektuak</p>
2024/02/13 (13:30 arte)	<ul style="list-style-type: none">– Eskajeraren eta Proiektuaren Memoriaren bidalketa.– Parte hartuko duen ikertzaile bakoitzak sinatutako agiria (erantzukizunpeko adierazpena) bidaltzea. Agiri horretan adieraziko da deialdi honetan eskatutako proiektua garatuko den urteetan aktibo dituen proiektuei zenbat denbora eskainiko dien, bai eta eskatutako proiektuari bakoitzak zenbat denbora eskainiko dion ere. <p>Dokumentu horiek aplikaziotik ateratzen dira, Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren esteka honetan dagoen eskaera bete ondoren: https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2024/pue-2024/web01-tramite/eu/</p>
2024/02/19	Deialdiaren bukaera

Eskatutako dokumentazioa adierazitako epeetan bidali beharko du IPak helbide honetara convocatoriasautonomicas.dgi@ehu.eus

Ezin izango da ziurtatu ordezkari legalaren sinadura lortuko denik, behin aurreko taulan aipatutako epeak igaro direnean.

